



«EUSKADI BASQUE COUNTRY LAGUNA» ERAKUNDE-AITORPENA ERATZEN ETA ARAUTZEN DITUEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA

57/2019 LGAKZ - LT

I.- AURREKARIAK

Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak goian aipatutako dekretu proiektuari buruzko txostena eskatu du, Tramitaguneren bidez, 2019ko maiatzaren 9an.

Oraingo gure legezketasun-txosten honen oinarri da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikulua, bai eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 14.1 c) artikulua ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzen duen ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.a) artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio egin beharreko txosten juridikoa egitea *“Xedapen orokorren proiektuak, erregelamenduz zehaztuko diren kasuetan eta irizpena egitea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagokionean”*. Honen harira, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikulua betebeharrak ezartzen du.

II.- DEKRETU PROIEKTUAREN LEGALITATEZKO AZTERKETA

A) Xedea



Aztertutako dekretu proiektuaren helburua «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena eratzea eta hura emateko prozedura arautzea da.

«Euskadi Basque Country Laguna» izeneko erakunde-aitorpenaren xedea, berriz, Euskadi Basque Country irudia kanpoan zabaltzeagatik edo haren ezagutzan nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoei publikoki aitortzea da.

B) Dekretu proiektuaren oinarri juridikoa

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren, azaroaren 26ko, 24/2016 Dekretuak, 4.1.f) artikuluan, Lehendakariari honako jardun-arloa esleitzen dio: Euskadiren ordezkari eta proiektio-politika kanpoan.

Apirilaren 11ko 70/2017 Dekretua, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen lehen artikuluan, Lehendakariaren jardute eremuak arautzen ditu betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

Aipatutako apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 13. Artikuluak xedatzen du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokiola besteak beste *“Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremana programatu, sustatu eta koordinatzea”, “Euskadiren nazioartekotzeko esparru-estrategia zehaztu eta abian jartzeko ekintzak bultzatu eta koordinatzea, bai eta kanpo-harremanen plan estrategikoa ere”* eta *“Kanpo-harremanetan eragina duten jarduerak gauzatzen dituzten erakunde publikoekin edo pribatuekin harremanak izatea”*.

Gainera, Jaurlaritzaren kanpo harremana bateratua izan dadin, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia eta bere organoak elkarlanean arituko dira Eusko Jaurlaritzako sailekin, horien erakunde autonomoekin, sozietate publikoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ente publikoekin, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari esleitutako egitekoak burutzeko, apirilaren 11ko, 70/2017 Dekretuaren 13.3 artikulua araberan.

Adierazitako oinarri juridiko horietan kokatzen da aztertzen ari garen dekretu proiektua.

C) Dekretu proiektua egiteko prozedura

Aztertuko dugun xedapenak dekretu forma duenez, dekretu proiektu honen izapidetzean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako prozedura jarraitu da, lege horretako 2. artikuluan ezarritakoaren aplikazio-eremuan baikaude.

Ildo horretatik, dekretu-proiektuarekin batera dokumentu hauek daude espedientean:

- Aurretiazko kontsulta publikoa, 39/2015 Legak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea ezartzen duenak, 133. artikuluan ezartzen duen moduan.
- 14/2019 Dekretua, Lehendakariarena, apirilaren 30ekoa, dekretu proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzen duena.
- Lehendakaritzako kanpo-harremanetako zuzendariak izenpetutako azalpen-memoria.
- Lehendakariaren 15/2019 Dekretua, maiatzaren 9koa, «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena eratzeko eta arautzeko dekretu-proiektua aurrez onartzen duena.
- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena.
- Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak egindako txosten juridikoa.
- Pertsona Ekintzaileei eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txikiari laguntzeari buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen zioen azalpenari erantzunez, enpresari eraginari buruzko txostena.

Dekretu proiektua egiteko orain arte jarraitu diren pausoak, bat datoz, gure iritziz, abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako irizpide eta betekizunekin.

Dena den prozedura burutzeko, legezkotasun txosten honez gain, beste txosten hauek falta dira oraindik:

- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzako Zuzendaritzaren txostena.
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia eta araudi-kontrolari buruzko txostena (Espedientea Kontrol Ekonomiko Bulegoari igorri aurretik memoria ekonomiko bat egin beharko du ekimen honen eragile-sustatzaileak, Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak, hain zuzen).

D) Dekretu proiektuaren egitura

Dekretu proiektu honek zioen azalpen bat, 11 artikulua eta bi azken xedapen ditu.

Hurrengo atalean proiektuaren edukiari buruzko legezkotasun azterketa egingo dugu.

E) Dekretu proiektuaren edukiaren azterketa

Lehen azaldu dugunez, eta **1. artikuluan** jasotzen den moduan, Dekretu proiektu honen helburua «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena eratzea eta hura emateko prozedura arautzea da.

2. artikuluan, «Euskadi Basque Country Laguna» izeneko erakunde-aitorpenaren xedea ezartzen da: Euskadi Basque Country irudia kanpoan zabaltzeagatik edo haren ezagutzan nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoei publikoki aitortzea.

3. artikuluan, arautu nahi den erakunde-aitorpenaren hartzaileak nortzuk izan daitezkeen arautzen da: Euskadi Basque Country-ren irudia atzerrian zabaltzen eta nazioartean

ezagutzera ematen laguntzen dutenei zuzentzen da (pertsona fisikoei nahiz juridikoei, publiko zein pribatu, eman ahal izango zaio).

4. artikulua, «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena deskribatzen du.

5. artikuluan, «Euskadi Basque Country Laguna» aintzatespenari hasiera emateko prozedura azaltzen da.

6. artikulua, izapidetzea ezartzen du. Izapidetzea egiteko, batzorde batek proposamenak aztertuko ditu. Halaber, batzordearen osaera eta erabakiak hartzeko erregimena ezartzen da.

7. artikuluan batzordeak jarraitu beharreko irizpideak zehazten dira.

8. artikulua «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena emateko ebazpena ezartzen du.

9. artikuluan, «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari dagokiola ezartzen da, baldin eta ebazpenean beste inori ez badio egiteko hori esleitzen.

10. artikuluan «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpenaren erregistro-liburuan sorrera ezartzen da.

11. artikulua, erakunde-aitorpenaren ezeztapena aurreikusten du.

Bukatzeko, dekretu-proiektuaren azken zatian, arauturiko dekretu proiektuan aurreikusi gabeko orotan ordezeko arautegia ezartzen duen azken xedapen gehigarri bat egoteaz gain (**azken xedapenetatik lehena**), azken xedapen bat dago, honek dekretu proiektua indarrean sartzen den eguna zehazten du (**azken xedapenetatik bigarrena**).

Dekretu proiektua aztertu ondoren, eta espedientea osatzen duten dokumentu guztiak kontutan harturik, dekretu proiektuak legezko baldintzak betetzen dituela uste dugu, bai

edukiaren aldetik eta baita espedientea izapidetzaren araudiaren ikuspegitik ere. Halaber, dekretu proiektuan erabiltzen den lege-teknika zuzena da, oro har, gure iritziz.

Beraz, bat gatoz Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak egindako txosten juridikoarekin.

III. ONDORIOA

Aztertutako dekretu proiektua indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela deritzogu.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.